

ETXE BETE▲

2025 - 2026 Deialdiak

ETXE BETE▲

Emakume sortzaileentzako
sormen-gune bat Bilboko
erdigunean

Etxe Betea **Bilboko erdigunean dagoen etxe fisiko bat** da. 2022an, **Lara Izagirre Garizurietak** sortutako **Gariza Films** ekoiztetxe independente eta feministaren lantaldeak espazio horren sorrera bultzatu zuen, eta, bertatik, **emakumeek egindako filmak sortzen laguntzeko hainbat deialdi** jarri zituzten abian.

Etxe Betea esparru **artistiko desberdinetako emakumeentzako topagunea da**, elkarrekin laneginahalizateko, kulturen arteko harreman berriak ezartzeko eta ikuspegi feministarekin lan-ildo berriak sustatzeko.

Deialdi arrakastatsuen ondoren, 2025etik aurrera, **Gariza Filmsek** irabazi-asmorik gabeko jarduera hori **Basque Know How Fundaziora** kanporatzea erabaki zuen, eta harekin lankidetzan jarraituko zuen.



2025eko uztailen, Etxe Beteak
4 deialdi ezberdin egiten
ditu **emakume zinemagileei**
zinemagileentzat.



AURKIBIDEA

- 03 Gela bat norberarena
- 07 A Shelter of One's Own
- 10 Two Week International Residency
- 12 Elkarrekin Sortzen
- 14 Eskatutako dokumentazioa
- 18 Laburpena

Interesdun bakoitzak **proiektu bera aurkeztu ahal izango du gaur egun irekita dauden deialdietan batean edo gehiagotan**, betiere deialdi bakoitzean ezarritako hautagarritasun-baldintzak betetzen baditu. Deialdi bakoitzaren oinarriak arretaz berrikustea gomendatzen da, irizpide espezifikoak betetzen direla ziurtatzeko; izan ere, proiektua onartzeko, prozesu bakoitzaren banakako ebaluazioa egin beharko da.

Deialdi guztiak **abuztuaren 25era arte**
egongo dira zabalik, **13:00etan** (CET).

GELA▲
BAT▲
NORBER▲RENA▲

2025-2026

ZER DA GELA BAT NORBERARENA?

Etxe Beteak Gela bat norberarena egoitza artistikoaren seigarren deialdia ireki du, Virginia Woolfen omenez. Aurreko edizioetan **Naiara Carmona, Estibaliz Urresola, Ainhoa Rodríguez, Mikele Landa, María Herrera, Naia Arantzamendi** eta **Tamara Lucarini** artistak izan genituen gurekin eta aurten ere egoitza artistikoen deialdia irekiko dugu, *Gela bat norberarena* egoitza artistikoari esker **bi emakume zinemagileri** beren film luzeak garatzen laguntzeko.

2025-2026 EDIZIOA

Gela bat norberarena egoitzaren seigarren edizio honetan **bi emakume zinemagileri lagunduko diegu beren film luzea egiten.**

Egoitza bat proiektua **euskaraz** garatu nahi duen emakume zinemagile batentzat izango da eta bestea proiektua **beste edozein hizkuntzatan** (gaztelania, katalana, galiziera, aranera, valentziera, ingelesa, etab.) egin nahi duen emakume zinemagile batentzat.

Hautatutako parte-hartzaile bakoitzak **gela fisiko bat** izango du Bilboko eraikinik berezietako batean eta **5.000 euroko** laguntza ekonomikoa jasoko du. Bi egoiliarrek beren proiekturako egokiena iruditzen zaien **mentorea** proposatu ahal izango dute, eta Etxe Betea taldeak proposamen horieke baluatuko ditu eta, ondoren, egoitza bakoitzarekin batera joango den mentorea berretsiko du.

Era berean, egoitza artistikoan **bidelaguntza feminista** izango dute parte-hartzaileek, izan ere, zaintza gogoan izanik, zineman lan egiteko formula feministak bilatuko dituzte.

Mentoretzak **2025eko urritik eta 2026ko ekainera** bitartean gauzatuko dira. Horrela, egoiliarra eta mentorea **hilean behin** bilduko dira (online edo aurrez aurre, bakoitzaren beharren arabera). Era berean, *Gela bat norberarena* programak hiru asteko **aurrez aurreko elkarretaratzeak** proposatzen ditu Etxe Betean. Hautatutako egoiliarrek horietan aurrez aurre parte hartzeko konpromisoa sinatu beharko dute eta, antolatzaileek proposatutako asteetan horietara joan. Etxe Beteak ez ditu bere gain hartuko joan-etorrien, dieten edo mantenuen gastuak.

Gela bat norberarena egoitza artistikoaren aurrez aurreko elkarretaratzeak honako data hauetan egingo dira:

- 2025eko azaroaren 24tik 2025eko azaroaren 28ra.
- 2026ko martxoaren 9tik 2026ko martxoaren 13ra.
- 2026ko ekainaren 8tik 2026ko ekainaren 12ra.

Salbuespenezko kasuetan, parte-hartzailearen eta mentorearen beharrak direla eta, data horiek aldatu ahal izango dira.

EGOITZAK

Egoitza-programa **hiru zatitan** banatuko da:

1. Lehenengoan, sortzaileek aukeratutako gaien inguruan ikertuko da.
2. Bigarrenean, gidoiaren lehenengo edo bigarren bertsioa sortuko da, proiektu bakoitzaren beharren arabera.
3. Hirugarrenean, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatuko da eta proiektu bakoitzerako ekoiztetxe edo laguntzaileak bilatzeko estrategiak ikusiko dira.

BALDINTZAK – GELA BAT NORBERARENA

Egoitza artistikoa **adin, nazionalitate eta esperientzia guztietako emakume**ei zuzenduta dago, baldin eta **hasierako garapen-fasean film luze baten** proiektua burutzeko ideia badute.

Eskatutako dokumentazioa dokumentu honen **18 orrialdean** zehazten da. Dokumentazio hori euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez bidali ahal izango da.

* **Euskara hizkuntza nagusia denean, fikzio edo dokumental telesailak** onartuko dira.

Egoitza amaitzean, aukeratutako zinemagileak bere proiektuaren **memoria bidali** beharko du Etxe Betea, proiektuaren aurrerapenak azalduz, egoitzaren hasieratik amaierara arte.

Eskatutako dokumentazioa baloratu ondoren, ikus-entzunezkoaren arloan esperientzia duen emakume-talde batek 5.000 euroko diru-laguntza jasoko duten eta Bilbon sortze-gune bat izateko eta bertan bizitzeko aukera izango duten zinemagileak aukeratuko ditu.

LOGOTIPOAK ETA KOMUNIKAZIOA

Hautatutako proiektuaren titularrak konpromisoa hartzen du **Gela Bat Norberarena logotipoa** eta egoitza artistikoaren laguntzaile edo babesleen logoa sartzeko, Etxe Beteak hartutako konpromisoek hala eskatzen badute materialetan, **hasierako kredituen tituluetan, posterrean, babesleen logo guztiak barne hartzen dituen publizitatean eta sektorearen erabileren arabera**. Egoitzak logotipoen fitxategi digitalak jarriko ditu hautatutako proiektuaren eskura.

Gela Bat Norberarenarekin lankidetzan egiten den komunikazio edo marketin ekintza oro Etxe Beteako komunikazio sailarekin koordinatu beharko da.

Titularrek konpromisoa hartzen dute, halaber, proiektuak *Gela Bat Norberarenan* parte hartu duela aipatzeko prentsa-oharretan, bai proiektua garatu bitartean, bai amaitu ondoren, eta Etxe Betea komunikazio sailari proiektuaren garapenean egindako edozein aurrerapenen berri emateko.

IRUDI-ESKUBIDEAK

Hautatutako zinemagileak baimena ematen dio Etxe Betea elkarteari bere irudia eta/edo ahotsa grabatzeko, edo bere pertsonaren argazkiak ateratzeko *Gela Bat Norberarena* egoitzan. Irudi horiekin eta egoitzako grabazioekin ikus-entzunezko hainbat pieza egingo dira, hala nola egoitzaren aurkezpen-bideo bat, adostutakoaren arabera.

Etxe Betea elkarteak konpromisoa hartzen du Datuen Babesaren arloan aplikagarri den legeria zorrotz errespetatzeko, eta jakinarazten du datu pertsonalak Etxe Betea elkarteak egoitza kudeatzeko duen fitxategibateansartu direla. Emandako datuak legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan gordeko dira.

Zure datuetan aldaketaren bat gertatuz gero, jakinarazi egin behar diguzu, zure informazioa eguneratuta edukitzeko.

LABURPENA

Gela bat norberarena egoitza artistikoak hurrengoa eskaintzen du:

- Logela bat Bilboko erdialdean.
- 5.000 € film luzea euskaraz garatzeko aukeratu den parte-hartzailearentzat.
- 5.000 € film luzea beste edozein hizkuntzatan garatzeko aukeratu den parte-hartzailearentzat.
- Mentoretza pertsonalizatuak.
- Aurrez aurreko saioak Etxe Betean.

▲ SHELTER OF ONE'S OWN

2025-2026

A SHELTER OF ONE'S OWN

Etxe Beteak *A Shelter of One 's Own* ekimenaren lehen deialdia kaleratu du. Nazioarteko egoitza artistiko bat, **sorkuntzarako eta hausnarketarako espazio segurua eskaintzea helburu duena, gatazka armatuan dauden herrialdeetatik, errepresio politikoko testuinguruetatik, adierazpen-askatasunik ezetik edo zinema-ekoizpenerako azpiegitura eta laguntza eskasetik datozen emakume zinemagileentzat soilik.**

Egoitzaren helburu nagusia proiektu zinematografikoak garatzeko ingurune segurua, askea eta egokia eskaintzea da, jatorriagatik edo gaiagatik proiektu horiek egiteko oztopoak aurkitzen baitituzte. Ikus-entzunezko lana aurrera eramateko egiturazko, gizarteko edo erakundeetako zailtasunei aurre egiten dieten sortzaileei zuzenduta dago, eta haien ahotsak babestea du helburu, baliabide zehatzen eta laguntza profesionalaren bidez.

Programa honek **Gela Bat Norberarena** egoitzaren **sei ediziotan metatutako esperientzia eta ikaskuntza hartzen ditu erreferentziatzat**. Egoitza hori emakumeek egindako zinema garatzeko erreferentziazko gune gisa finkatu da. Eredu horretan oinarrituta, *A Shelter of One 's Own*-ek honako hauek eskaintzen ditu:

- **5.000 €-ko diru-laguntza** zinema-proiektuaren garapenerako.
- **9 hilabeteko ostatua Bilboko** eraikin esanguratsuenetako batean.
- **Hileroko mentoriak** eta aurrez aurreko topaketak *Etxe Bete*an.

Ekimen honen bidez, *A Shelter of One 's Own* ekimenak zineman ahotsen aniztasuna, eskubide kulturalen defentsa eta sormen-askatasuna sustatzen ditu, ikuspegi intersektionala eta justizia sozialarekin, feminismoarekin eta giza eskubideekin konprometitua.

2025-2026 EDIZIOA

A Shelter of One 's Own ekimenaren lehen edizio honetan **emakume zinemagile bati lagunduko diogu bere film luzearen garapenean.**

Egoitza proiektu **film luze bat garatzen ari diren** emakumeentzat da, filma zein hizkuntzatan egiten den kontuan hartu gabe. **Proiektua edozein hizkuntzatan gauzatu ahal izango da.** Hala ere, egoitza barruko **garapen-prozesua** eta **eskatutako dokumentazio** guztia **gaztelaniaz** edo **ingelesez** aurkeztu beharko da.

Egoiliarrek banakako **logela bat** izango du **Bilboko** eraikin enblematikoenetako batean, **9 hilabetez**. Gainera, **5.000** euroko laguntza ekonomikoa izango du. Egoiliarrek bere proiekturako egokiena iruditzen zaion **mentorea** proposatu ahal izango du eta Etxe Betea taldeak proposamen hori ebaluatuko du eta, ondoren, egoitzarekin batera joango den mentoreak baieztatuko du.

Era berean, egoitza artistikoan **bidelaguntza feminista** izango dute parte-hartzaileek, izan ere, zaintza gogoan izanik, zineman lan egiteko formula feministak bilatuko dituzte.

Mentoriak 2025eko urrian eta 2026ko ekainean banatuko dira. Egoiliarra eta mentorea **hilean behin** bilduko dira (online edo aurrez aurre, bakoitzaren beharren arabera). Gainera, A Shelter of One 's Own-ek hiru asteko **topaketa presentzialak** proposatzen ditu Etxe Betea. Hautatutako egoiliarrek bertaratzeko konpromisoa sinatu beharko dute, eta mentoreak proposatutako asteetan bertaratuko dira. *Etxe Betea*, programaren antolatzaile den entitatea, ez da arduratuko bisen kudeaketaz, ezta hautatutako partaideen joan-etorrietako gastuez edo elikadura gastuez (eguneko dietak) ere.

A Shelter of One 's Own egoitza artistikoaren aste presentzialak honako hauek izango dira:

- 2025eko azaroaren 17tik 2025eko azaroaren 21era.
- 2026ko martxoaren 2tik 2026ko martxoaren 6ra.
- 2026ko ekainaren 8tik 2026ko ekainaren 12ra.

Salbuespenezko kasuetan, parte-hartzailearen eta mentorearen beharrak direla eta, data horiek aldatu ahal izango dira.

BALDINTZAK – A SHELTER OF ONE'S OWN

Egoitza artistikoa edozein adin eta esperientziatako emakumeei zuzenduta dago, betiere **gatazka armatuetan dauden herrialdeetatik badatoz, adierazpen-askatasunerako murrizketak badituzte edo zinema-produkziorako azpiegitura eta laguntza eskasa badute.** Hautagaiek **film luzeko** proiektu bat garatzen egon beharko dute, eta **fikziozko, dokumentalak, esperimentalak, animaziozkoak edo hibridoak** diren lanak aurkeztu ahal izango dituzte, genero zinematografikoko murrizketarik gabe.

Eskatutako dokumentazioa dokumentu honen **18 orrialdean** zehazten da. Dokumentazio hori gaztelaniaz edo ingelesez bidali ahal izango da.

Bidali beharreko dokumentazioaren artean **ezinbestekoa da motibazio gutuna**, non izangaiak egoitzan parte hartzeko duen interesa azaldu beharko duen, zein herrialdeetatik datorren eta bere praktika zinematografikoari eragiten dion testuinguru soziopolitikoa edo kulturala.

Egoitza amaitzean, aukeratutako zinemagileak bere proiektuaren **memoria bidali** beharko du Etxe Betea, proiektuaren aurrerapenak azalduz, egoitzaren hasieratik amaierara arte.

Eskatutako dokumentazioa baloratu ondoren, ikus-entzunezkoaren arloan esperientzia duen emakume-talde batek 5.000 euroko diru-laguntza jasoko duten eta Bilbon sortze-gune bat izateko eta bertan bizitzeko aukera izango duten zinemagileak aukeratuko ditu.

LOGOTIPOAK ETA KOMUNIKAZIOA

Hautatutako proiektuaren titularrak konpromisoa hartzen du **A Shelter of One's Own logotipoa** eta egoitza artistikoaren laguntzaile edo babesleen logoa sartzeko, Etxe Beteak hartutako konpromisoek hala eskatzen badute materialetan, **hasierako kredituen tituluetan, posterrean, babesleen logo guztiak barne hartzen dituen publizitatean eta sektorearen erabileren arabera**. Egoitzak logotipoen fitxategi digitalak jarriko ditu hautatutako proiektuaren eskura.

A Shelter of One 's Own-rekin lankidetzan egiten den komunikazio edo marketin ekintza oro Etxe Beteako komunikazio sailarekin koordinatu beharko da.

Titularrek konpromisoa hartzen dute, halaber, proiektuak *A Shelter of One 's Own*-n proiektuak parte hartu duela aipatzeko prentsa-oharretan, bai proiektuagaratubitartean, bai amaitu ondoren, eta Etxe Betea komunikazio sailari proiektuaren garapenean egindako edozein aurrerapenen berri emateko.

IRUDI-ESKUBIDEAK

Hautatutako zinemagileak baimena ematen dio Etxe Betea elkarteari bere irudia eta/edo ahotsa grabatzeko, edo bere pertsonaren argazkiak ateratzeko *A Shelter of One 's Own* egoitzan. Irudi horiekin eta egoitzako grabazioekin ikus-entzunezko hainbat pieza egingo dira, hala nola egoitzaren aurkezpen-bideo bat, adostutakoaren arabera.

Etxe Betea elkarteak konpromisoa hartzen du Datuen Babesaren arloan aplikagarri den legeria zorrotz errespetatzeko, eta jakinarazten du datu pertsonalak Etxe Betea elkarteak egoitza kudeatzeko duen fitxategi batean sartu direla. Emandako datuak legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan gordeko dira.

Zure datuetan aldaketaren bat gertatuz gero, jakinarazi egin behar diguzu, zure informazioa eguneratuta edukitzeko.

TWO WEEK INTERNATIONAL RESIDENCY

2025-2026

TWO WEEK INTERNATIONAL RESIDENCY

Two Week International Residency Etxe Beteak bultzatutako programa bat da, eta bi astez nazioarteko zinemagile bat hartzea du helburu, luzemetrai proiektu bat garatzeko. Egoitza Bilbon dago, eta lan-ingurunea, laguntza profesionala eta feminista eskaintzen ditu, egilearen eta haren obraren sormen-aurrerapenerako baldintza egokiak.

Aurreko edizioan, Etxe Beteak bere edizio pilotua jarri zuen abian, **Thessalonikiko Nazioarteko Zinema Jaialdiaren (Grezia)** eta **Neela Asmaan (Pakistan)** egoitza artistikoaren arteko truke baten bidez. Bi astez, **Alkisti Efthymiou** zinemagile greziarra Etxe Betan bizi izan zen, eta Alba Crosen mentoría jaso zuen. Ondoren, **Mikele Landa** euskal zinemagilea Greziara joan zen Evia Film Project jaialdian parte hartzeko.

Horrekin batera, Neela Asmaarekin elkarlanean, **Tamara Lucarini** zinemagilea Pakistanera joango da bi astezko erresidentzia egitera. Ondoren, Pakistango artista bati harrera egingo diote bi astez Etxe Betan.

Orain Etxe Betan **bi astezko egonaldia egiteko deialdia zabaldu** dugu nazioartean.

Hau da *Two Week International Residency*-k eskaintzen duena:

- **Bi astezko ostatua** Etxe Betan.
- Etxe Betean **bi astez lan egiteko** aukera.
- **Mentoretzak** sektoreko emakume profesional batekin.

Aurrez aurreko bi asteak otsailean edo maiatzetan izan daitezke.

Salbuespenezko kasuetan, parte-hartzailearen eta mentorearen beharrak direla eta, data horiek aldatu ahal izango dira.

BALNDINTZAK - TWO WEEK INTERNATIONAL RESIDENCY

Deialdia **Espainian bizi ez diren adin eta esperientzia maila guztietako emakume zinemagileei zuzenduta dago**. Zinemagile bakarra aukeratuko da egoitzaren edizio honetan parte hartzeko.

Film luzeko proiektu bat garatzen ari diren zinemagileek parte har dezakete (fikziozkoak, dokumentalak, esperimentalak, animaziozkoak edo hibridoak), genero zinematografikoaren murrizketarik gabe eta prozesuaren etapa zehatzik gabe (idazketa, garapena edo aurreproduktzioa).

Eskatutako dokumentazioa dokumentu honen **18 orrialdean** zehazten da. Dokumentazio hori gaztelaniaz edo ingelesez bidali ahal izango da.

Egoitzan parte hartzeko, konpromiso irmoa hartu behar da antolatzaileek adierazitako bi aste osoetan joateko. Horretarako, nahitaezkoa izango da bertaratzeko **konpromisoaren orria** [<https://drive.google.com/drive/folders/1rJTPbB2pG4giqrG2nv529MoBpvlldSOYp?usp=s-haring>] sinatzea, eta dokumentazioarekin batera entregatu beharko da.

ELK▲RREKIN SORTZEN

2025-2026

ELKARREKIN SORTZEN

Etxe Beteak Elkarrekin Sortzen emakume zinemagileen lantaldearen laugarren deialdia ireki du. Aurreko edizioetan honako zinemagile hauek parte hartu dute: **Naiara Carmona, Lara Izagirre, Mikele Landa, Tamara Lucarini, Nerea Sciarra, Tessa Andonegi, Ainhua Aierbe, Naia Arantzamendi, Itxaso Díaz, Maitane Carballo, Itziar Lamarka, Sara Martorana, Lucía Montero, Aizpea Atxa, Estibaliz Maguregi, Estibaliz Curiel, María Monreal, Mònica Cambra, Soledad Santelices, Yolanda García** eta **Sonia Estévez**.

Elkarrekin sortzen lantaldeak honako hau eskaintzen du:

- **Hileroko topaketak Etxe Betean euskal emakume zinemagileekin**, urritik ekainera. Elkarretaratze horietan sortzaile bakoitzak bere ikus-entzunezko proiektua besteekin partekatu ahal izango du, eta guztien artean proposamenak egin eta hobekuntzak eskainiko dira.
- Proiektuen **pitching saioa** euskal ikus-entzunezko industriari.
- **Lan-aste intentsibo bat** ekainean, Bizkaiko **landetxe batean**.

Laugarren edizio honetan *Elkarrekin sortzen* programarako **bi lantalde independente** sortuko dira: bata **euskaraz** eta bestea **gaztelaniaz**.

Elkarrekin sortzen topaketen egutegia hurrengo izango da:

2025eko urriak 22 // 2025eko azaroak 26 // 2025eko abenduak 17 // 2026ko urtarrilak 28 // 2026ko otsailak 25 // 2026ko martxoak 25 // 2026ko apirilak 22 // 2026ko maiatzak 20 // 2026ko ekainak 8tik 2026ko ekainak 12ra.

BALNDINTZAK - ELKARREKIN SORTZEN

Elkarrekin Sortzen **edozein adin, nazionalitate eta esperientziatako emakumeei** zuzenduta dago, **euskaraz** edo **gaztelaniaz** hitz egiten duten eta **garapen fasean edo aurreratuan dauden film luze, film labur, telesail** edo **antzezlan** baten proiektuaren ideia dutenei. Ez da ezinbestekoa Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea, baina nahitaezkoa da hileroko Bilbora joatea.

Bertaratzeko konpromisoa sinatu behar da [<https://drive.google.com/drive/folders/1rJTPb2pG4giqrG2nv529MoBpvlD5OYp?usp=sharing>], eta aurrez aurre joan behar da lantaldeak **Bilbon** egingo dituen hileroko saioetara.

Eskatutako dokumentazioa dokumentu honen **18 orrialdean** zehazten da. Dokumentazio hori euskaraz bidali behar da euskarazko proiektuetarako, eta gaztelaniaz gaztelaniazkoetarako.

BEH▲RREZKO DOKUMENTAZIO▲

2025-2026

DOKUMENTAZIOA

Etxe Betea programaren deialdietan parte hartzeko eskatzen den **dokumentazioa berdina izango da guztietan**. Eskatzaileek oinarri hauetan ezarritako dokumentu berak aurkeztu beharko dituzte, deialdi espezifiko batera aurkeztuta ere, deialdi jakin batean aurkakoa adierazi ezean.

Eskaera-formularioan, interesdunak Etxe Betea programako zein deialditara aurkeztu nahi duen hautatzeko aukera eskainiko da, eta aldi berean deialdi bat baino gehiago aukeratu ahal izango du. Hainbat deialditara aurkeztuz gero, aukeraketa hori justifikatzen duten arrazoiak azaldu beharko dira memorian, eta bereziki motibazio-gutunean, hautatutako deialdi bakoitzean parte hartzearen interesa eta egokitasuna azalduz.

HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Hautaketa proiektuaren kalitatearen eta koherentziaren, proposamenaren interes artistikoaren eta izangaiak adierazitako motibazio pertsonalaren arabera egingo da. Azken erabakia zinematografia sektoreko emakume profesional talde batek hartuko du, Etxe Betak gainbegiratuta, eta apelaezina izango da.

DATUEN BABESA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Bidaltzen den dokumentazio guztia konfidentziasun osoz tratatuko da eta deialdi honekin zerikusia duten helburuetarako bakarrik erabiliko da. Etxe Beteak datu pertsonalen tratamendu segurua eta arduratsua bermatzen du, datuen babesaren arloan indarrean dagoen legediaren arabera. Hautagaiaren berariazko baimenik gabe, informazioa ez da inola ere partekatuko hautapen-prozesutik kanpoko hirugarrenekin.

BESTE DEIALDI BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Gela bat norberarena, A Shelter of One's Own, Two Week International Residency eta Elkarrekin Sortzenen parte hartzea bateragarriak dira beste deialdi, beka edo egoitza artistiko batzuekin, betiere bertaratzeko konpromisoa oztopatzen ez badute.

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

Lineako inprimakia bete beharko da [<https://forms.gle/YFxFrbkCqg3ZIpX69>], hurrengo informazioa eta dokumentazioa jasoz:

- **Datu pertsonalak** (izen-abizenak, adina, harremanetarako informazioa, nazionalitatea, proiektuaren hizkuntza nagusia)
- Proiektuaren azalpen-**memoria** (gehienez 20 orrialde, gehienez 10GB). Hurrengo jaso beharko du:
 - Zinemagilearen eta haren aurreko lanen aurkezpena, lan horiek ikusteko estekekin batera, halakorik egotekotan.
 - Aukeratutako egoitza artistikoaren interes espezifikoak garatzen duen interes-gutuna.
 - Proiektuaren aurkezpena, sinopsi labur batekin, sortzaileak pelikula honi ekiteko duen behararekin eta erresidentzian zehar garatu beharreko sormen bideekin. Eta sortzaileak partekatutzat jotzen duen informazio egoki eta garrantzitsu oro, hautapen-taldeak proposaturiko film-mota eta haren tonua uler ditzan.
- **Video pitch.** Aurkezpen-bideoa, gehienez hiru minutukoa, egileari eta proiektuari buruzko idatzizko dokumentazioan eskaintzen denaz gain, deskribapen gehigarri batekin. Proiektua euskaraz bada, bideo pitch-a ere euskaraz egin beharko da.
- Halakorik izatekotan, **gidoiaren** edo **tratamenduaren** lehen bertsioa aurkeztu ahal izango da. Hala ere, hori ez da hautaketa-taldeak baloratuko duen dokumentazioaren parte izango.
- **Dagokion deialdian parte hartzeko konpromiso-orria** [<https://drive.google.com/drive/folders/1rJTPbB2pG4giqrG2nv529MoBpvlIdSOYp?usp=sharing>]
- **Proiektuaren egiletzaren erantzukizunpeko adierazpena.** [<https://drive.google.com/drive/folders/1Ade0utiiqBYLA0WaLK4F-BE7DPw4J36C?usp=sharing>]

Dokumentazio guztia abuztuaren 25eko 13:00ak baino lehen bidali behar da. Aipatutako baldintza guztiak betetzen dituzten hautagaitzak baino ez dira baliozkotzat joko.

HIZKUNTZA

Eskatutako dokumentazioa **euskaraz**, **gaztelaniaz** eta **ingelesez** aurkeztu ahal izango da.

Hala ere, **Gela Bat Norberarena euskaraz** eta **Elkarrekin Sortzen euskaraz** modalitateetan, euskara hutsean aurkeztutako proiektuak bakarrik baloratuko dira, bai testu idatzietan eta baita bideopitchean ere. Baldintza horrek bi ekimenen helburu espezifikoak erantzuten die, euskarazko sorkuntza eta garapen artistikoa bultzatzean zentratuta.

DEIALDIAK

2025-2026

GEL▲
BAT
NORBER▲RENA▲

▲ SHELTER
OF ONE'S
OWN

TWO WEEK
INTERNATION▲L
RESIDENCY

ELK▲RREKIN
SORTZEN

Abuztuaren 25eko 13:00ak arte

LABURPENAK

	GELA BAT NORBERARENA 9 hilabeteko egoitza artistiko ordaindua eta mentoretzak dituen. Egonaldi bat euskaraz eta beste bat beste hizkuntza batean.	A SHELTER OF ONE'S OWN Ordaindutako 9 hilabeteko egoitza artistikoa, mentoretzekin, gatazkan dauden herrialdeetako emakumeentzat edo muga politiko eta adierazkorrak dituzten emakumeentzat	TWO WEEK INTERNATIONAL RESIDENCY 2 asteko nazioarteko egoitza artistikoa, ordaindu gabea eta mentoriekin.	ELKARREKIN SORTZEN Zinemagileen arteko hileroko topaketak. Bi lantalde: bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Ordaindu gabea.
Norentzat	edozein adineko emakumeak	edozein adineko emakumeak	edozein adineko emakumeak	edozein adineko emakumeak
Nazionalitatea	Edozein	Gatazkan dauden edo muga politiko eta adierazkorrak dituzten herrialdeak	Mundu guztia (Espainia izan ezik)	Euskal Herrian bizi direnak edo Bilboko saioetara bertaratze konpromisoa hartzen dutenak.
Behar den esperientzia	Edozein	Edozein	Edozein	Edozein
Proiektu-mota	Film luzea Seriea (euskaraz bakarrik)	Film luzea	Film luzea	Film luzea Film laburra Telesaila Antzezlanak
Ostatu	Bai	Bai	Bai	Ez
Etxe Beterako joan-etorria	Ez	Ez	Bai	Ez
Iraupena	9 hilabete	9 hilabete	2 aste	9 hilabete
Ordainsaria	5.000 €	5.000 €	Ez	Ez
Mentoretzak	Bai	Bai	Bai	Ez
Hautatutako proiektuak	- euskarazko proiektu bat - proiektu bat beste edozein hizkuntzatan	proiektu bat	proiektu bat	3/5 proiektu euskarazko talderako 3/5 proiektu gaztelaniaz

INFORMAZIO GARRANTZITSLIA:



Dokumentazioa bidaltzeko, formularioa bete behar da:

<https://forms.gle/YFxFrbkCqg3ZipX69>



Bertaratzeko konpromisoaren gutunak deskargatzeko:

<https://drive.google.com/drive/folders/1rJTPbB2pG4giqrG2nv529MoBpVldSOYp?usp=sharing>



Erantzukizunpeko adierazpena deskargatzeko:

<https://drive.google.com/drive/folders/1AdeOutiiqBYLA0WaLK4F-BE7DPw4J36C?usp=sharing>



Deialdia zabalik **2025eko abuztuaren 25eko 13:00ak (CET) arte.**

Zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan helbide elektroniko honetan:

lacasallena.bilbao@gmail.com